

“Zure ideiak balio du” lehiaketaren XV. edizioa, 2019

Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak, BIC Arabak eta Vital Fundazioak ideia ekintzaileen “Zure ideiak balio du” lehiaketaren XVI. ediziorako deialdia egin dute, Araba Ekinean lehiaketaren XV. edizioaren esparruan.

1. Lehiaketaren helburua

Arabarren ideia ekintzaileen berri ematea, haien garapen-maila edozein izanik ere. Jarduera honen xedea da berritzaileak, sortzaileak eta egokiak diren negozio-ideiak aitortzea eta ezagutaraztea.

2019ko edizio honetarako honako kategoria hauek ezarri dira, baita ikusleen sari berezi bat ere:

- **Ideiak:** kategoria honetan, garatu ez diren, baina originalak izateagatik edo etorkizunerako ahalmen handia edukitzeagatik ezagutaraztea merezi duten ideiak jasoko dira. Horren bidez, oraindik garatu ez badute ere ekintzaile-espirtua baduten ikasle gazte edo pertsonen parte-hartzea sustatu nahi du Epaimahaiak. Ideia irabazlearen saria diploma bat izango da, baita 500 euro ere, eskudirutan, On4u Global Services agentziaren babesletzarekin.

- **Jasangarritasuna:** 2019ko edizioan eutsi egingo zaio garapen jasangarriaren balioak hobekien islatzen dituen eta ekonomia zirkular berriaren elementuak hobekien sustatzen dituen proiektuarentzako sariari. Sari hori Ingurumen Industrien Euskadiko Kluster Elkarteak (Aclima) babesten du, eta Epaimahaiak diploma bat eta 500 euro emango dizkio aurkeztutako proiekturik onenari.

- **Merkataritza eta turismoa:** Merkataritza eta turismoaren esparruan garatu ahalko diren proiektu guztiak bilduko dira atal honetan. Sari hori Gasteiz ON erakundeak babesten du, eta Epaimahaiak diploma bat eta 1.000 euro emango dizkio aurkeztutako proiekturik onenari.

- **Nekazaritzako elikagaiak** Epaimahaiak diploma bat eta 1.000 euro emango dizkio nekazaritzako elikagaien sektorean egitekoa den aurkeztutako proiekturik onenari. Sari hori Eroski erakundeak babesten du.

- **Industrialia** Industria-esparruan aurkeztutako proiekturik onenak ere diploma bat eta 1.000 euro jasoko ditu. Michelin Fundazioak babesten du sari hori.

-Zerbitzuak: Pertsonen premiak gogobetetzera bideratutako proiektuak biltzen dira atal honetan, baina merkataritza eta turismoaren esparrukoak ez direnak, azken horiek kategoria propioa baitute. Irabazten duen proiektuak diploma bat eta 1.000 euro. (eskudirutan) jasoko ditu. Alegría Activity babesten du sari hori.

-Metxa Sari Berezia: Aurreko kategoria guztietako proiektu guztien artean proiektu berritzaile eta eskalagarriena aukeratuko du Metxa azeleratzaileak, eta sari berezi bat emango zaio, hau da, Metxa Bootcamp gunean doan parte hartzea, 4.000 euroan balioetsitako partaidetzarekin.

-Ikusleen Sari Berezia: Aurreko kategorietako proiektu guztien artean, bertaratutako ikusleek aurkezpenik onena bozkatuko dute, eta irabazleari Ikusleen Sari Berezia emango zaio, hau da, saria egiaztatzen duen diploma eta 300 euro eskudirutan.

-Enpresa-arloko eraldaketa sozialaren RPK sari berezia: Aurkeztutako proiektu guztien artean, edozein kategoriatara aurkezten direla ere, RPK-k inpaktu sozial handiena eta onena duena hautatuko du, industriaren eta eraldaketaren sozialaren arteko lerrokatzea ezartzeko moduan. 1.000 euroko saria izango da.

Kategoria bakoitzean irabazten duten proposamenek, halaber, tutorizazio- eta aholkularitza-sari bat irabaziko dute beren proiektua abian jarri eta garatzeko, Araba Ekinean ekimenaren erakunde laguntzaile baten eskutik.

Aurkeztutako proposamenen kalitate teknikoa ez ezik, proposamenak aurkezteko antolatuko den ekitaldian egiten den aurkezpen publikoa ere oso positiboki balioetsiko du “Zure ideiak balio du” lehiaketako Epaimahaiak. Une horrek berebiziko garrantzia du ideia ekintzaileak defendatzeko eta saltzeko, baita proiektuan jarritako konfiantza erakusteko eta Epaimahaia eta bertaratutako jendea proiektuaren alde jartzea lortzeko ere.

2. Parte hartzaileak

Proposamen edo ideia ekintzaileak dituen pertsona orok (adin-mugarik gabe) parte har dezake; Araban bizi direnei edo Arabako ikasleei lehentasuna emango zaie, baina ez da kontuan hartuko ideia ekintzailea zein sortze- edo garapen-fasetan dagoen.

Parte-hartzaileek banaka edo taldean aurkeztu ahal izango dituzte beren proposamenak, eta proposamen horiek edozein jarduera edo enpresa-sektoretarako izan daitezke.

3. Lanen aurkezpena

Proposamenak aurkezteko epea "Zure ideiak balio du" lehiaketaren XV. deialdi honen oinarriak argitaratzearekin batera irekiko da, 2019ko urtarrilaren 21ean, eta urte bereko martxoaren 11n amaituko da, 14:00etan.

FORMATU ELEKTRONIKOAN AURKEZTU BEHARREKO NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA:

- Parte-hartzaile(ar)en izen-abizenak
- Parte-hartzaile(ar)en NANaren fotokopia
- Harremanetarako telefonoa eta emaila
- Ideia ekintzaileari buruzko azalpen-memoria (GEHIENEZ 5 FOLIO, erantsi nahi diren irudiak edo bideoak kontuan izan gabe)
 - Proposamenaren izenburua
 - Sustatzaileak
 - Ideia ekintzailearen laburpena
 - Balizko merkatua
 - Xede-publikoa
 - Hala badagokio, ideiak orain arte egindako ibilbidea eta esperientzia edo jasotako errekonozimenduak (sariak, diplomak...)
 - Harremanetarako telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa
 - Proposamenaren maketa, beharrezkotzat hartzen denean (formatu fisikoan edo digitalean)*

Dokumentazio hau 2019ko urtarrilaren 21etik martxoaren 11ra bitarte igorri beharko da formatu elektronikoa info@alavaemprende.com helbide elektronikora.

“Zure ideiak balio du” lehiaketaren XV. deialdiari buruzko edozein zalantza argitzeko, info@alavaemprende.com helbide elektronikora idatz daiteke, edo 945232548 telefono-zenbakira deitu.

Aurkezten den proposamen ekintzaile bakoitzari dagokion dokumentazioa FORMATU DIGITALEAN bidali behar da, EZ PAPEREAN.

* Beren ideia ekintzailearen maketa fisikoa aurkeztu nahi dutenek Araba Ekinean lehiaketaren Idazkaritza Teknikoaren egoitzara (Herminio Madinabeitia kalea, 22; Gasteiz) eraman beharko dute, eta "Zure ideiak balio du" lehiaketaren XV. edizioa amaitu ondoren itzuliko zaie. Epaimahaiak kideek eta Idazkaritza Teknikoko langileek bakarrik eskuratuko dute maketa eta hari dagokion proiektuari buruzko informazioa. Informazioaren inguruko konfidentzialtasuna bermatzen da.

4. Proiektu irabazleak hautatzeko eta erabakitze prozesua

4.1 Proiektu finalisten lehen hautaketa

Proposamenak ezarritako epean (2019ko urtarrilaren 21etik martxoaren 11ra bitarte) aurkeztu ondoren, Epaimahaiak balioespen handiena jaso duten proiektuen lehen hautaketa egingo du, eta emaitza 2019ko martxoaren 21ean jakinaraziko die parte-hartzaile guztiei (finalista hautatutakoei nahiz hautatu gabekoei).

Une horretatik aurrera, Araba Ekinean lehiaketaren Idazkaritza Teknikoa finalistekin harremanetan jarriko da, beren ideia ekintzaileen jendaurreko aurkezpena prestatzeko jarraibideak jakinaraztearren. Aurkezpena 2019ko martxoaren 26an egingo da, 19:00etan, Gasteizko Villasuso Jauregian.

Aurtengo edizioan, lehiaketaren Idazkaritza Teknikoak komunikazio-aholkularitza emango die finalista guztiei, euren azken aurkezpena egiteko.

Aurtengo edizioan, epaimahaiak alderdi azpimarragarriari edo hobetu beharreko puntuari buruzko iritzia emango die ideia eta proiektu finalista guztiei.

4.2 Aurkezpen publikoa

Proiektuen aurkezpena diapositiba-erakusketa labur batekin egingo da, eta oso bisualak izango dira (adibidez, *pecha kucha* formatua), iruditan, esloganetan eta funtsezko ideiatan oinarrituta, proiektuak 2019ko martxoaren 26rako aurreikusitako ekitaldian aurkezteko.

Ekitaldi horretan, parte-hartzaile bakoitzak 5 minutu izango ditu gehienez ere (denbora hori gainditzen badu, proiektua penalizatu egingo da, eta epaimahaiak ematen dion puntuazioan kontuan izango da penalizazio hori).

Epaimahaiak ezarritako 8 lehenengo kategorietan aurkeztutako proiektuen inguruan eztabaidatuko du, eta bertaratutako ikusleek epaia emango dute zuzenean, Ikusleen Sari Berezia merezi duen proiektua izendatuz.

4.3 Sari-banaketa

Edizio honetan ezarritako honako kategoria hauei dagozkien 9 sari emango dira

Ideiak: diploma eta 500 euro

Jasangarritasuna: diploma eta 500 euro

Merkataritza eta turismoa: diploma eta 1.000 euro

Nekazaritzako elikagaiak: diploma eta 1.000 euro

Industrialia: diploma eta 1.000 euro

Zerbitzuak: diploma eta 1.000 euro

Metxa Sari Berezia: Diploma eta plaza bat Metxa Bootcamp gunean, 4.000 euroan balioetsitakoa

Ikusleak: diploma eta 300 euro

Social

Sari-banaketaren ekitaldia 2019ko apirilaren 3an egingo da, Europa Biltzar Jauregian, eta proiektuko kideren batek nahitaez egon beharko du ekitaldian saria jaso ahal izateko, eta ez badago, hurrengo sailkatuari egokituko zaio saria.

5. Epaimahaia

“Zure ideiak balio du” ideia ekintzaileen lehiaketaren XV. deialdiko epaimahaia honako erakunde hauetako ordezkariak osatuko dute: Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala, Arabako Merkataritza Ganbera, Ajobask, BIC Araba, SECOT, Hetel, Ikaslan, UPV-EHU (Arabako Campusa), Deustuko Unibertsitatea, Metxa, Emprendiza, Aclima, Michelin Fundazioa, One4you, Gasteiz On, ASLE, Eroski, Alegría Activity eta RPK.

Epaimahaiaren erabakia epaimahaiko kideen gehiengoz ebatziko da, betiere proposamenek daukaten sormenaren, bideragarritasunaren eta Arabako enpresa-sarean izan dezaketen eraginaren eta ezartzeko aukeraren arabera.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiak hutsik utz dezake ezarritako edozein kategoria.

“Zure ideiak balio du” lehiaketan parte hartzen duen orok oinarri guztiak onartu behar ditu.

6. Komunikazioa eta hedapena

Araba Ekinean ekimenaren XVI. edizioko jarduera-programa prentsaurrekoan zabalduko da, eta lehiaketari buruzko informazio guztia honako gune hauetan egongo da eskuragarri:

- Webgunea: alavaemprende.com
- Sare sozialak: [@alavamprende](https://twitter.com/alavamprende) (Twitter) eta Alava Emprende (Facebook)